

Dendaostekoetan oinarrituta ariko dira oholtzan

'Dendaostekoak' bertso irakurraldia egingo dute kultur etxean. Uxue Alberdi arduratuko da berak idatzitako liburuko pasarteak irakurtzeaz, eta Labaka eta Ibarzabal ariko dira bertsotan / 5

Txoriak ezagutzeko ibilbide batekin hasiko da aurtengo Aste Berdea, 'Lur bakar bat' lelopean / 2

Aqua Lauda korua eta Helsingborg-eko Ahots Taldea gonbidatu dituzte XVII. Musika Topaketetara / 3

Eider Redondo gazteak urrezko domina irabazi du proba konbinatuetoako Gipuzkoakoan / 10

Ostadar SKTk denboraldi amaierako festa egingo du bihar, hilak 28, Oriarte Landaberri eraikinean / 13



Teresa sorgina, jaistear

Zabaletako jaiak ospatuko ditu herriak, hilaren 31tik ekainaren 5era / 6-7

TXINTXARRI



Zozketa!

Ttakun Kultur
Elkarteko bazkide zara?

BIZIPOZA elkartearen eskutik
MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT CD+DVD sorta bikoitza
zozkatuko dugu izena ematen
duten bazkideen artean.

Eman izena maiatzaren 29a baino lehen.

harpidetza@ttakun.eus helbidean,
eta 646 82 44 66 (whatsapp)



MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Udaberrian, presta ezazu **azala** udarako!

Zure azal motarentzat tratamendu
egokiena aukeratzeko dugu



ZERBITZU MISTOAK

Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45





Esker-eskuin: Itziar Gurrutxaga ingurumen teknikaria, Agustin Valdivia alkatea eta Artelatze ordezkarri Mikel Urruzola. UDALA

Ingurunea zaintzeko premiaz sentsibilizatzeko

'Lur bakar bat' lelopean, Lasarte-Oriak bat egin du Aste Berdearekin, herritarrak natura inguruneaz arduratzeko beharraz kontzientziaztea asmo duen egitasmoarekin. Lehen jarduera hilaren 29an egingo dute, hegaztien mundua ezagutzeko ibilbide bat

Txintxarri

Ingurumenari buruzko esperientzia, iritzi eta ezagutzak trukatzeko asmoz, Lasarte-Oriako Udalak eta Artelatze enpresak Aste Berdea antolatu dute aurten ere; Europatik datorren egitasmoa da, eta *Lur bakar bat* da aurtengo leloa. Bost jarduera aurrera eramango dituzte herrian, doakoak guztiak, hilaren 29tik hasi eta ekainaren 4ra arte, larunbatarekin.

Artelatze ordezkarri Mikel Urruzola herritarraren hitzetan, "maila globalean pentsatu baina tokian-tokian jardun behar da; horretarako, ingurune hurbilena ezagutzea erabakigarria da". Aste Berdeko jarduera guztiak "oso interesgarriak" direla gehitu du, eta doakoak. Izena eman nahi dutenek 943-67 02 49 telefonora deitu beharko dute.

Ekimen hori Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren bueltan (ekainak 5) antolatu dute. Esan bezala, *Lur bakar bat* da aurtengo leloa, lurra larrialdi hirukoitz

bati aurre egin behar diolako: klima azkarregi berotzen ari da; milioi bat izaki bizidun inguru desagertzeko arriskuan daude; eta kutsadurak airea, lurra eta ura pozointzen jarraitzen du.

Bost jarduera

Hegaztiak ezagutzeko ibilbide batek irekiko du Aste Berdea, hilaren 29an. Mikel Olano adituaren eskutik, partaideek ezagutuko dituzte herriko ibai eta soro inguruetan bizi diren espezieak. Bi egun geroago, Froilan Elespe parkeko landareak ezagutu ahal izango dituzte: 10:00etako eta 16:00etako saioak euskaraz izango dira, eta 19:00etakoak, gaztelaniaz.

Ekainaren 2ko toki izenei buruzko ibilbidea Luis Mari Zaldúa adituak gidatuko du. Hurrengo egunean birziklatzeari buruzko informazio gune bat jarriko dute Okendon, eta 4an Oriak ibaia garbitzera joango dira. Horretarako materiala Artelatze berak eramango du.

Aste Berdeko jarduerak

Maiatzak 29, igandea
• **Tximistarreta, 10:00.**
Hegaztien mundua ezagutzeko ibilbidea.

Maiatzak 31, asteartea
• **Froilan Elespe parkea.**
10:00, 16:00, 19:00. Hiru saio, bertako landareak nolakoak diren ezagutzeko.

Ekainak 2, osteguna
• **Tximistarreta, 19:00.**
Herriko toki izenei buruzko ibilbidea.

Ekainak 3, ostirala
• **Okendo, 16:00-20:00.**
Birziklatzeari buruzko informazio gunea.

Ekainak 4, larunbata
• **Okendo, 09:30.** Oriak ibaieratzaren garbiketara.



Udaleko Euskara batzordeburu Jon Antxordoki eta Mugika autoeskolako Ana Mugica. TXI.

Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz prestatzeko deia

Azterketa euskaraz egin eta gainditzen dutenen artean, 400 euroko bederatzi sari zozkatuko dituzte eskualdeko udalek

Txintxarri

Azken urteetan egin bezala, Buruntzaldeko sei udalek (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz prestatzera animatu dituzte herritarrak, eta, batez ere, gazteenak: aurten 18 urte beteko dituztenei gutun bana bidali diete etxera. Azterketa euskaraz egin eta gainditzen dutenen artean 400 euroko bederatzi sari zozkatuko dituzte.

Aipatu udaletako Euskara zerbitzuek garatzen dute egitasmoa, eskualdeko

autoeskolekin elkarlanean: Andoainen, Bengoetxea eta Mendik parte hartuko dute; Astigarragan, Otamendik; Hernani, Lagunak eta Otamendi Hernanin; Mugicak Lasarte-Orian; eta Urnietan nahiz Usurbilen, Solozabalek.

Mila lagun baino gehiago

Baztertu aurreiritziak eta hautsi inertziak! lelotzat hartuta, 12 urte daramatzate udalek egitasmoa sustatzen, eta jakinarazi dute 1.192 lagunek lortu dutela gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzea.

Ekitaldi ugari egingo dituzte Udaberri Festa amaitu aurretik

Aterpea elkarteak 2.000 euro zozketatuko ditu erosketa bonuetan; kanpaina hilaren 28an bukatuko da, larunbatez

Txintxarri

Tokiko merkataritza sustatzeko asmoz, Aterpea elkarteak Udaberri Festa egiten ari da egunotan. Kanpaina hilaren 28an bukatuko da, larunbatarekin. Egun hori baino lehen eragileko bazkide den dendaren batean erosten duten bezeroak zozketa batean sartuko dira: 2.000 euro, erosketa bonuetan.

Egitasmoari amaiera borobila emate aldera, Aterpeak makina bat jarduera prestatu ditu hilabeteko azken astebururako. Batetik, zenbait establezimenduk eskaintza bereziak egingo dituzte:

Buenetxea tabernak, esate baterako, bost eurotan salduko ditu garagardo eta patata min errazio bana. Bestetik, tailerrak haurrentzat, hala nola, loreak landatzen ikastekoa Ormazabal loradendan. Hori gutxi balitz, Arkupe tabernan rock abestien bertsioen kontzertu bat emango dute, eta DJ batek girotuko ditu Nahio dendaren inguruak. Azkenik, txu-txu trenak herria zeharkatuko du behin eta berriro hilaren 28an. Egitarau osoa www.txintxarri.eus atari digitalean kontsulta daiteke.



Aquam Lauda koruko kideek XI. Musika Topaketetan parte hartu zuten, 2016an. TXINTXARRI

Hondarribia eta Suedia batuko dira gure herrian

Danok Kide elkarteak XVII. Musika Topaketak egingo ditu bihar, hilak 28, Ama Brigitarren komentuan. Aqua Lauda koru gipuzkoarra eta Suediatik etorriko den Helsingborg-eko Ahots Taldea gonbidatu ditu. 19:30ean hasiko dira emanaldiak, eta sarrera doakoa da

Txintxarri

Danok Kide elkarteak XVII. Musika Topaketak antolatuko ditu biharko, hilak 28, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean. 19:30ean hasiko dira abesten Hondarribiako Aqua Lauda korua eta Suediatik etorriko den Helsingborg-eko Ahots Taldea. Ama Brigitarren komentuan ariko dira eta sarrera doakoa da.

Lehen abestia elkarrekin kantatuko dute, Aqua Laudaren zuzendari Javier Bustoren *Ave María*. Suediarrek jarraituko dute ondoren, eta hamar pieza partekatuko ikus-entzuleekin: *Ave María, Fran tronon, Harlig ar jorden, Kung Lijekonvalje, Musik, Reeds of innocence, The*

Lord is my shepherd, Ukrainen Alleluia, Under ronn och syren eta Thank you for the music.

Zati hori izango da topaketetako mardulena. Amaitzen denean, berriz ere bi abesbatzak batera ariko dira eta *Sommarpsalm* izeneko abestia kantatuko dute. Bukatzeko, Aqua Laudak honako bloke hau interpretatuko du: *Ave maris stella, I believe, Cörtame una rosa blanca eta Amaiur.*

Hamazazpi kide

Helsingborg-eko Ahots Taldea 1996an sortu zen. Gaur-gaurkoz hamazazpi koralistak osatzen dute taldea, eta Marianne Ivarsson da zuzendaria. 26 urte

daramatzate han eta hemen kontzertuak ematen, nazioarteko lehiaketetan parte hartzen eta mundu osoko abesbatzekin emanaldi trukeak egiten.

Aqua Lauda 2014ko urtarrilean jaio zen, Hondarribian. Hasieratik, helburua izan da emakumezkoen abesbatzentzat sortutako musika zabaltzea. Gaur egungo zuzendaria Javier Busto da. Ez dira aurreneko ariko Lasarte-Orian, 2016ko musika topaketetan izan baitziren. Pandemia tarteko, bi urtez geldirik egon dira, eta "gogo betez" itzuli dira lanera, Bustok berak azpimarratu duenez. Aurten Ejea de los Caballeros (Aragoi) hirian izan dira.



TXINTXARRI

Dantzari txikien eguna bueltan da

Erketz EDTk 32. Dantzari Txiki Eguna ospatuko du etzi, hilak 29. Kukuka (Lasarte-Oria), Orbeldi (Usurbil) eta Makaia (Faltzes, Nafarroa) gonbidatu ditu. Andatza plazan elkartuko dira 11:00etan; 11:30etik 13:00era auzoz auzo egingo dituzte emanaldiak; 13:15ean elkarrekin ariko dira Okendon; eta jolasak egingo ditu 17:15ean. Eguraldi txarra egitekotan, Oriarte Landaberrira joango dira.



XXX. BATZAR NAGUSIAREN BILKURA

Ttakun Kultur Elkarteko bazkideei XXX. Batzar Nagusiaren bilkurara gonbidatu nahi zaituztegu:

Eguna: 2022ko ekainaren 8an, asteazkena.
Ordua: 18:30ean lehen deialdia eta beharrezko bazkideen herena bilduko ez balitz, 19:00etan bigarren deialdia.
Lekua: Ttakunenean.

GAI ZERRENDA

1. Lehendakariaren agurra.
2. 2021ean egindakoaren balorazioa.
3. 2021eko diru-kontuen azalpena.
4. Zuzendaritzako kideak.
5. 2022rako egitasmoak.
6. 2022ko aurrekontua
7. X. Euskararen Maratoialdiaren berri ematea.
8. Eskerak eta galderak Otordutxo

Bazkideren batek gairen bat proposatu nahi badu, ekainaren 1a izango da horretarako azken eguna. Proposamena idatziz aurkeztu beharko du ttakun@ttakun.eus helbidera bidaliz edo ttakunera ekarriaz.

Batzar Nagusiaren bilkuran elkar ikusiko garelakoan, agur bero bat.

Ttakun Kultur Elkarteko Zuzendaritza Batzordea



TXINTXARRI

Gogotsu mugitu dituzte oinak

Maiatzeko laugarren igandean kalera irten ziren Plaza Dantzako kideak. Hogeita hamar bat lagun aritu ziren lehenik Okendo plazan, eta ondoren, Antonio Mercero plazan, baloian jolasean ari ziren haurrengandik babesteko. Eguraldia lagun izan zuten, eguzkiak eta beroak ez baitzieten gehiegi eragin. Gogotsu mugitu zituzten oinak eta inguruan begira zeudenen arretra piztu zuten.

Laborategiaren magia ezagutu dute



KREMA ETA XABOIA

Oriarte institutua eta TXINTXARRI aldizkaria elkarlanean ari dira aurtengo apiriletik. Hilean behin, ikastetxe horretako mintegietan aritzen diren ikasleek landu dutenaren berri emango dizuete, esku artean duzuen agerkari honen bidez. Kimika eta Fisika mintegiko ikasleek prestatu dute bigarren artikulua, JPAZ ikasgaikoek, laborategian egindakoa erakusteko.



Laborategiko ikasle finek lan bikaina egin dute ikasturtean zehar. ORIARTE INSTITUTUA

Oriarte BHI institutuko 4. mailako ikasle talde batek azaldu digu nola egin duten eskuetako krema hidratatzaile eta xaboi natural bana. Hamazazpi ikasleko hiru taldetan banatzen dira, eta Fisika zein Kimikan oinarritzen diren esperimentuak egiten dituzte

Fisika eta Kimika, JPAZ laborategia

Jarduera Profesionalari Aplikatutako Zientziak ikasgaiaren murgilduta dabilta Oriarte BHI institutuko 4. mailako zenbait ikasle, hamazazpi zehazki. Kurtsoan zehar orduak eta orduak sartu dituzte laborategian, bertan gertatzen den magia nola egiten den ikasten. Horren fruitu izan dira eskuetako krema hidratatzaile bat (proiektua Inge Trantxe, Unax Riezu, Andoni Sanchez, Ane Theus eta Leire Delgadok egin dute) eta xaboi natural bat (Gerard, Aitana eta Alene izan dira egileak).

Horiez gain, Fisika eta Kimika arloekin lotutako esperimentu gehiago egin dituzte. Adibidez: xaboi pastilak, serum fisiologikoa, produktu batzuen pHa aztertzea, krema bera, perfumea, eta abar.

Jarraian, krema eta xaboa egiteko urratsak dituzue. Ikasleek primeran pasa zuten produktu horiek sortu bitartean, eta irakurleak animatzen dituzte gauza bera egitera.

Eskuetako krema hidratatzailea

MATERIALA:

- Balantza
- Bainu termostatikoa
- Probetak
- Hauspeakin ontziak
- Beirazko hagatxoak
- Ontziratzeko tarroak (40ml.-koa)

OSAGAIK: (40g -rako)

- Neo PCL O/W 2g
- Azido estearikoa 0,4g
- Almendra gozo olioak 4ml
- Nipagin M sodikoa 0,1g
- Urea 4g
- Ur distilatua 29,5ml

PROZEDURA:

1. Lehenik, Neo PCL O/W, azido estearikoa eta almendra gozo olioak nahastu ditugu.
2. Gero, nahastea hauspeakin ontzi batean edukita bainu termostatikoa jarri dugu, urtu dadin (65-70°C). Ondoren, hagaxkarekin nahastu dugu.
3. Lehen fasea egin bitartean, beste hauspeakin ontzi batean Nipagin M sodikoa, urea eta ur distilatua nahastu behar dira. Nahaste hori bainu termostatikoa berotu dugu baita ere.
4. Bi nahasteak bainutik atera eta bigarren nahastea lehenengoan isuri dugu poliki-poliki, etengabe irabiatuz, hoztu arte.
5. Denbora luzez nahastu ondoren, 24 orduz utzi genuen, krema testura hartu arte.
6. Disfrutatu!



Irudian, krema hidratatzailea egiteko behar diren osagaiak. ORIARTE INSTITUTUA



Ikasle pare bat, xaboa egiteko produktuekin lanean. ORIARTE INSTITUTUA

Xaboi naturala

JPAZ laborategiko beste kide batzuek xaboi naturala egiteko prozedura azalduko dute hurrengo lerroetan:

Praktika hau Gerard, Aitana eta Alenek egin dugu, Oriarte institutuko laborategian. Garai batean egiten zen moduan, xaboi bat egin dugu. Lehenbizi, prezipitatu ontzi batean olioak eta sosa kaustikoa bota dugu, beirazko hagatxoarekin mugitu eta, kasu batzuetan, koloratzailea gehitu. Konsistentzia lodia izatean, moldeetara bota dugu eta egun batez gogortzen utzi dugu. Horren pHa neurtu, eta azalerako egokia zela ikusi dugu.

Xaboa egitea lortu dugu eta etxera eraman dugu, erabiltzeko, guk nahi genuen moduan. Gutako batzuek oparitu ere egin dugu eta oso harrera ona izan du.

Eskerrak eman nahi dizkiegu irakasleei beren laguntzagatik, eta institutuari ere bai, behar ditugun baliabideak eskaini dizkigulako. Gure esfortzuekin xaboi tradizionala, natural-naturala egitea lortu dugu.



Uxue Alberdi Estibaritz idazle eta bertsolaria bere ama eta izebaren denda, Pitxintxun, 'Dendaostekoak' eskuetan duela. RUBEN PLAZA

Dendaostekoak, oholtza gainean

'Dendaostekoak' bertso irakurraldia egingo dute kultur etxean. Uxue Alberdiren kronika literarioaren pasarteak irakurrita osatu beharko dituzte bertsoak Ane Labakak eta Nerea Ibarzabalek. Aitor Nova musikariak girotuko ditu Alberdiren irakurketak

Txintxarri

Literatura eta bertsolaritza zaleek hitzordu erakargarria dute gaurko, hilaren 27. Lasarte-Oriako Muntteri AEKrekin elkarlanean, eta Korrika Kulturalaren azken jarduera gisa, irakurraldi bertsoa egingo dute. Uxue Alberdi Estibaritz idazle eta bertsolariaren *Dendaostekoak* liburua oinarri hartuta egingo dute saioa. Idazleak bere lanaren pasarteak irakurri eta hortik abiatuta bertsoan arituko dira Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal. Aitor Nova musikaria izango dute lagun. Alberdirekin hitz egin du TXINTXARRI aldizkariak, *spoiler* handirik egin gabe, egitasmoaren nondik norakoak bildu asmoz.

Ahozko eta idatzizko literatura uztartuko ditu egitasmoak. Idazlea bera izango da liburuko pasarteak irakurriko dituena, eta mikro

aurrean aritu bitartean, pasarte horietarako propio sortu dituen "doinu bandak" joko ditu Novak. Irakurraldi horiei lotuta arituko dira gero bertsoan Labaka eta Ibarzabal, horiek a *capella*.

1978. urtean zabaldu zituen ateak Elgoibarko Pitxintxu dendak, San Frantzisko kalean, Deba ibaitik gertu, eta negozioaren dendaostean gertatu eta bizitakoak bildu ditu Alberdik *Dendaostekoak*-en. Bi dendari, jostun eta liburu sailtzaile dira protagonista nagusiak (Alberdiren ama eta izeba), eta askotariko gaiak ukitzen ditu

KRONIKA LITERARIOKO PASARTEETATIK ABIATUTA ARITUKO DIRA BERTSOTAN

kronika literarioak, interesgarria iruditu baitzizaion, gisa horretako denda batetik abiatuta, azken urteetan gertatutako aldaketa politiko, paisajistikoa, sozial, kultural eta arkitektonikoez hitz egitea.

"Eguneroko bizitza eguneroko bizitzatik" kontatzea zen idazlearen asmoa *Dendaostekoak* idazten hasi zenean, eta horrelaxe egin zuen: "Ez da izugarritzko elebazio linguistikoa eta poetikoa duen liburua, baina iruditzen zait, bere sinpletasunean, kontatzen duela bizitzaz eta jendearen arteko igurtziez. Herriko kale eta tabernez hitz egiten du, komunitatea osatzen duten pertsoez, paisaiez...".

Ahozko zein idatzizko literaturaren bitartez eginiko "ebokazio indar bat" izan nahi du gaurko saioak. Izan ere, *Dendaostekoak* Elgoibarren

kokatzen bada ere, bertsolari eta entzuleek izango dute, bakoitzak bere egunerokoan, beren kale eta komunitatean kokatzeko aukera: "Literaturaren bitartez norbera bere memoriara joan daitekeela uste dut".

Ezohiketarik irten eta egunerokoa izendatzeko baliatu du idatzizko lana Alberdik: "Batuetan, literatura ulertzen da ezezaguna gerturatzeko tresna gisa, urruneko lurraldeez edo oso gauza berezietz hitz egiteko leku bezala. Hori bada literaturaren funtzio bat, baina beste bat da egunerokotasuna izendatzea, askotan, hain gertu dauzkagun errealitateak, erabat naturalizatuta ditugunak hitzetara ekartzea. Batuetan hain dira familiarrak, ikusi ere ez ditugula egiten".

Bertsolariak "modu librean"

Bertsolariak zer abestuko duten ezin daiteke aurrez jakin, bertsolaritza zerbait bada, inprobisazioa delako, baina ziur arituko direla aurrez aipatutako gaiei erreferentzia eginez. Esan bezala, liburuko hainbat pasarte aukeratu ditu Alberdik, eta hortik abiatuta jarriko dizkie kantarako gaiak: "Oso ondo jarraitzen diren gaiak dira, liburua irakurri gabe edukita ere erraz ulertu daitezke".

"Ahalik eta gairik aberatsenak" jartzeko ahaleginak egin ditu idazleak, eta saiatu da irakurketarako aukeratu dituen pasarteak askotariko erregistroak izan ditzaten: "Egongo dira memoria, gogoeta egiteko gaiak, baita fikziozkoak ere eta umorerako ere izango da tartea".

18:30ean izango da irakurraldi bertsoa, kultur etxeko auditorioan eta bertaratzeko sarrerak erosi behar izan dituzte interesatuek.

Herriko Irakurle Txokoko gidari

Lasarte-Oriako Irakurle Txokoarekin ere badu loturarik Alberdik; taldeko gidari edo dinamizatzailea da. Aurtengo ikasturtea kontuan hartuta, bederatzigarren urtez aritu da lan horietan, eta taldearen berri ere eman dio TXINTXARRI-ri.

"IRAKURLE TXOKOKO SAIOAK IREKIAK DIRA; EZ DA IRAKURLE ADITU IZAN BEHAR BERTAN PARTE HARTZEKO"

Lasarte-Oriakoarekin batera, gidatzen ditu baita ere Getariakoa eta Zumaiakoa, eta hiru herrietako arteko antzekotasuna zein den azaldu du: "Hiruetan dago nukleo egonkor bat, hasiera-hasieratik ari dena". Baina, Lasarte-Oriakoak badu "bereiztasuna" bat: "Taldea autogestionatua da. Beste bi herrietan udalak ordaintzen dit niri eta idazle gonbidatuei, baina Lasarte-Oriak ez da horrela gertatzen. Iruditzen zait, benetan txalotzekoa dela, bederlatzi urtetan liburu bat irakurri eta hortaz hitz egiteko bezain gauza simple bezain erradikala egin ahal izateko ahalegin handia egiten dutela". Gogoratu du herriko Irakurle Txokoak dirua lortzeko zozka txartelak saldu ohi dituela, eta Bertso Saio Literarioa egiten duela otsailean.

Taldearen dinamika zein den ezagutarazi du, aldizkariaren irakurleen artean, bertan parte hartu nahi duen herritarrik bada. Euskaraz idatzitako edota euskarara itzultitako liburuak irakurtzen dituzte, eta hilean behin elkartzeko dira irakurritakoak hitz egiteko. Bi hilean behin gainera, idazlea (tarteka itzultzaileak ere bai) gonbidatzen dute, ikasturtean lau gonbidatu jasotzen dituzte. Hauek izan dira aurtengo idazle gonbidatuak: Nerea Loiola *Epizentroa* liburuarekin, Eneko Aizpurua *Bidasoan gora*-rekin, Hedoi Etxarte *Sortaldekoak* lanarekin eta Ane Labaka izango da aurtengo azkena, *Algara mutilatuak*-ekin. Ekainaren 2an izango da saio hori, ostegunarekin.

Saioak irekiak dira, eta horietan parte hartu nahiko lukeen edonor bertaratu daiteke. "Oso talde atsegina" dela azpimarratu du, eta jakinarazi parte hartzaileek ez dutela "irakurle aditu" izan behar: "Hori da hain zuzen politena, era guztietako irakurleak biltzen garela. Norberak bere aldetik egiten dituen irakurketak konpartitzen ditugu, eta oso aberasgarria da hori. Askok ikasten da irakurketa konpartitu horietatik, gakoak jasotzen dira irakurketa sakonagoak egin eta beste modu batera gozatzeko. Sakonago zuzutzen dira liburuak".

Irakurle Txokoan parte hartu nahi duenak 695 78 53 89 telefono zenbakira dei dezake, edo kultura@ttakun.eus helbidera idatzi.



Zabaleta Auzolan elkarteko lagunek lasarteoriatar guztiak gonbidatu dituzte auzoko jaietz gozatzerara. Adin guztientzako jarduerak prestatu dituzte. TXINTXARRI

Bi urte eta gero, bueltan dira Zabaleta auzoko jaiak

Zabaleta Auzolan elkarteko lagunek mimo eta ilusioz prestatu dute egitaraua: hilaren 31tik ekainaren 5era arte hamaika jarduera egingo dituzte. Lasarteoriatar guztiak gonbidatu dituzte jaietz gozatzerara, "auzo giro, errespetu eta alaitasunez"

Iñigo Gonzalez Sarobe

Kazetariok, sarritan (gehienetan ez esateagatik), titular triste eta ezkorra idazten ditugu. Badira, ordea, baikorrak direnak, ordenagailuaren aurrean esertzen denak gustura sartzen dituenak maketan. Hauxe da horietako bat: "Bi urte eta gero, bueltan dira Zabaleta auzoko jaiak". Ohi bezala, Zabaleta Auzolan elkarteko lagunek prestatu dituzte, mimo eta ilusioz, han inguruan bizi direnek ez ezik, lasarteoriatar

guztiek goza ditzaten. Martxoan hasi zituzten bilerak, eta 2020tik festak egin ezin izanagatik "automatismo batzuk" galdu badituzte ere, elkarteko kideek beraiek azaldu dutenez, programa polita eta adin guztientzakoak ondu dute.

Hilaren 31tik ekainaren 5era arte ospatuko dituzte jaiak. Eskuorri batean jaso dute egitaraua, eta irakurtzen duenari ezagunak egingo zaizkio jarduerak: bertsolariaren emanaldia,

erromeria eta proba misto nagusia, esate baterako.

Noiztik da hasiera-hasieratik? Auzo elkarteko lagunek aditzera eman dutenez, 1988an hasi ziren festak antolatzen. "Garai horretan haurrak zituen jende gazte ugari elkartzen zen plazan, eta beharra ikusi zuten Zabaleta alaituko zuen jai herrikoi eta euskaldun batzuk egitea". Orduan ekin zioten, beraz, erromeriak antolatzen (1989an, esaterako, gerora oso ospetsu egin zen

Kaxiano ekarri zuten); proba misto nagusia (txingak, lokotz biltzea, korrika egitea eta trontza), "hiruzpalau urtez baserrien beraien arteko lehia izan zena"; eta bertsolariaren emanaldia, besteak beste. Horiez gain, batzordean urte gehien daramatzaten auzotarrek gogoratzen dute nola gaur egun Telleri-Gain auzotegia den lursail horretan kukaina egiten zen, eskalatuz igo behar zen makil bertikalaren proba alegia, eta puntan txorizo bat jartzen zuten.

Urteak joan eta urteak etorri, kide ugari sartu eta atera dira auzo elkartetik eta jai batzordetik. Historikoen artean, gogoan izan dituzte Antonio Blas eta Jose Migel Aranzadi, biak ala biak hilda daudenak, baina batez ere hasierako urteetan "funtsezko lana" egin zutenak auzoko jaiak aurrera eramateko. Lehenari aitortza egite aldera, Zabaletako *betiko* plazari (azken urteetan

1988AN HASI ZIREN "AUZOKO JAI HERRIKOI ETA EUSKALDUNAK" ANTOLATZEN

TERESA SORGINA 2005ETIK JAITSI IZAN DA AUZORA; AURTEN ERE ETORRIKO DA

gehiago eraiki dituzte inguruan) bere izena eman zioten, eta bigarrenaren omenez makina bat urte daramatzate eskoba eta mus txapelketak egiten.

Azken urteetan asko hazten ari da auzoa, bizilagun berri ugari etortzen ari dira, eta "pozik" daude Zabaleta Auzolaneko kideak, horietako zenbait "oso prest" azaldu direlako elkartearen zereginetan lagundu eta festak prestatzeko. Horrez gain, azpimarratu dute "oso polita" dela ikustea festak egiten hasi ziren urteetan haurrak zirenak eta orain guraso direnak ere han izatea. "Anekdotak eta bizipen eder ugari kontatzen dituzte".

Jaiak antolatzeko, lantaldeak egin dituzte. "Ostegunero elkartu izan gara, martxotik hona, 8-9 lagun". Egitaraua prestatu, eskuorrietan txukun-txukun jaso, eta herrian barrena banatu dituzte. Horrez gain, auzokideei zuzendutako ohar bat prestatu dute, abisatzeko hilaren 31tik ekainaren 5era "kantu, musika eta algara" izango dela nagusi Zabaletan. Festak auzo giro, errespetu eta alaitasunez ospatzeko deia ere luzatu dute. "Jende asko etorri da hona bizitzera, eta ez dituzte inoiz bizi izan festak. Espero dugu ulertuko dutela urtean behin besterik ez ditugula egiten, ea ez den arazorik izaten".

Teresa sorgina

Haurren jolasak, azken urteetan auzoko ereserkietako bat bilakatu den *Gas gas* abestia dantzatzea eta japoniar bonbak prestatzea. Horiek jaietako lehen eguneko jarduerak (egitarau osoa alboko orrian kontsulta dezakezue). Motorrak eta giroa berotzeko jarduerak izango dira. Hurrengo egunetan ere egingo dituzte, beste batzuekin batera. Festa, dena den, ostiralean lehertuko da, ekainaren 3an, Teresa sorgina menditik auzora jaitsiko baita orduan, bi urte eta gero bera ere.

"Teresategi mendian eraiki asmo zuten industrialdearen aurka protesta egiteko ekintza batzuk egin ziren, martxa bat tartean, eta, testuinguru horretan, erabaki genuen Teresa izena jartzea gure jaien ikur den sorgin horri; Alejandro Romok egin zuen". Gogoratu dutenez, 2005ean egin zuten jaitsiera aurrenekoak, eta orduz geroztik ez dute hutsik egin, azken bi urteetan izan ezik, COVID-19ak eragindako etenaldi behartua izan dela kausa.

Auzo osoan zehar ospatuko dituzte festak, jakina, baina gune nagusia frontoia eta alboko pista izango dira. Bertan jarri dituzte eszenatokia eta txosnak, elkartearen urteko jardunerako "diru iturri garrantzitsu" izango direnak.

Frontoia eta auzo etxea

Zabaleta Auzolan elkarteak festak egiten hasi eta urte gutxitara eratu zen, 1991ko abenduan. Hasiera-hasieratik, auzoa dinamizatu eta jarduerak egiteaz gain, bi eskaera egin izan dizkiote Lasarte-Oriako Udalarari: biltzeko lokal bat (luzaroan, bizilagun baten garaje pribatuan elkartu izan dira kideak) eta frontoia behar zituztela. Urte askoren ondoren, eskakizun zirenak egia bilakatu dira. "Auzo etxea asko erabiltzen dugu, bilerak egiteaz gain ekimen eta hitzaldi batzuk egin ditugu honezkeron". Pilotalekua 2018ko azaroan inauguratu zuten, eta orduz geroztik makina bat izan dira bertara pilotan, palan edo frontenisean jokatu dutenak. 2019ko jaietan egitura hori izan zen ospakizun gune nagusia, eta aurten ere hala izango da.

Behin dena prest izanda, festa egunez gozatzea dute buruan auzo elkarteko kideek. Edonola ere, aurreratu dute, ondo bidean, Zabaletan errotuta dauden zenbait jarduera ere aurten itzuliko direla, esate baterako, Udazken Festa.

TXINTXARRI-rekin izan duten elkarriketa bukatu aurretik, herritar oro gonbidatu dute auzora igo eta jaietz gozatzerako. Behin eskatzen hasita, euririk ez egitea gustatuko litzaieke, ohikoa izaten baita ekain hasiera horretan, egun batez gutxienez, eguraldi txarra egitea. Dena den, ur tantak erori ala ez, festarenugarra ez dute itzaliko. Ongietorriak izan zaitezte denok Teresa sorginaren akelarrera!

FRONTOIA ETA ALBOKO PISTA IZANGO DIRA FESTEN GUNE NAGUSIAK

JARDUERA GEHIAGO ITZULIKO DIRA AURTEN AUZORA, ESATE BATERAKO, UDAZKEN FESTA



ZABALETAKO FESTAK - EGITARAUA

► Maiatzak 31, asteartea

18:00-20:00: Haurren jolasak, eskulanak
20:00: Gas Gas eta japoniar bonbak

► Ekainak 1, asteazkena

18:00: Antzerkia, Kukukaren eskutik.
18:30-20:00: jolasak haurrentzat: talentu bila eta serigrafia (kamiseta argi banarekin joan behar dute parte hartzaileek).
20:00: Gas Gas eta japoniar bonbak

► Ekainak 2, osteguna

18:00-20:00: Apar festa eta ur jolasak.
18:30-20:00: Pintxo potea.
20:00: Gas Gas eta japoniar bonbak.
20:15: Umorezko bakarrizketa, Bea Egizabal aktore eta umoristaren eskutik.

► Ekainak 3, ostirala

18:00: Antzerkia Kukukaren eskutik, Basotxo plazan.
18:30: Txokolatada, Basotxo plazan.
18:30: Bingoa, Gazte Klubaren eskutik.
18:45: Kalejira Teresa sorginarekin batera, Basotxo plazatik abiatuta.
19:00: Teresa sorginari ongietorria, auzoko frontoian: jaietako pregoia, Jalgune elkarteko lagunak dantza eta Sorgin Dantza herrikoia.
19:30: Gas Gas eta japoniar bonbak.
20:00: Bertsolariak. Ane Labaka, Miren Artetxe, Andoni Mujika eta Eñaut Martikorena. Gaiak auzoko gazteek jarriko dizkiete.
21:00: Auzo afaria, norberak jatekoa eramanda.

23:00: Euskal Dantza Sorkuntza, Kukukarekin.

00:00: **etatik aurrera:** Rock gaua: The Noise Makers, Rukula eta Eroka.



► Ekainak 4, larunbata

09:00: Diana.
10:00: Futbol festa, adin guztientzat.
11:30: Buruhandiak eta erraldoiak LOZET konpartsaren eskutik, Kilker Band txarangarekin.
11:30: Joxe Migel Aranzadiren oroimenezko XIII. Eskoba Txapelketa.
13:00: Bermut musikatua: El Grafiti + Ibey Beatbox.
15:30: Joxe Migel Aranzadiren oroimenezko XIII. Mus Txapelketa.
17:00-20:30: Haurren festa: altxoraren bila eta zinta lasterketa (adin guztientzako; bizikleta ekarri).
20:30: Gas Gas eta japoniar bonbak.
21:00: Afari herrikoia. Tiketak, ohiko lekuetan salgai.
23:30: Akelarre dantza.
00:00: Musika gaua: Ameba, Errietan eta DJ Fantasia.

► Ekainak 4, igandea

09:00: Diana.
11:00: Kukukaren Euskal Dantzak eta Sorkuntza.
11:00: Patata tortila txapelketa.
12:00: Oaintxe in deu txaranga.
12:15: Pilota partidak: Hernani, Lasarte-Oriaren aurka.
13:15: Proba misto nagusia.
14:30: Bazkari herrikoia.
17:30: Kantu festa, Xumelarekin.
18:00-20:00: Erromeria: Bide Batez.
18:30: Toka txapelketa
20:30: Azken traka eta Teresa sorginari agurra.





Irudi engainagarriak

1etik 10era zenbatuta dauden zati hauetatik erdiak engainagarriak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta. Bereiz itzazu onak eta engainagarriak.

Zenbat?

Bide batez, zenbat saguzar ikusten dituzu irudi handian?

Hamaika ikustekoak

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.





Proba konbinatueta txapelketan parte hartu zuten alebin mailako atletak. Redondo ezkerretik hasita bigarrena da. OSTADAR ATLETISMOA

Eider Redondo, proba konbinatueta garaile

Ostadar Atletismoa saileko alebin eta infantilek Proba Konbinatueta Gipuzkoako Txapelketa lehiatu dute. Atletak lehen hogeita bosten artean sailkatu dira; Eider Redondok urrezko domina lortu du bi proba irabazi eta beste batean bigarren izan ostean

Txintzarri

Ostadar Atletismoa saileko kideek antolatuta, hilaren 22an Eskolarteko Proba Konbinatueta Gipuzkoako Txapelketa lehiatu zen. Alebin eta infantil mailako gaztetxoek proba ezberdinei aurre egin zieten.

Ostadar SKTko zazpi kideek parte hartu zuten eta Eider Redondok lortu zuen emaitzarik onena: Gipuzkoako txapeldun berria da.

Hiru proba egin behar izan zituzten alebin mailako atletak: 60 m. lasterketa, pisu jaurtiketa eta luzera jauzia. Redondok lehen postua lortu zuen abiadura (8,19)

eta jauzi probetan (4,6 m.); pisu jaurtiketan, berriz, bigarren izan zen (8,81). Guztira, 1.623 puntu batu zituen eta sailkapeneko lehen postua eskuratu zuen herritarrek.

Lehen hamarren artean sailkatu zen Oihane Belartietara ere. Zazpigarren izan zen infantil mailan. Atletak lau proba gaititu behar izan zituzten: 80 m. lasterketa zein 80 m. hesi lasterketa, luzera jauzia eta pisu jaurtiketa.

Horiez gain, talde urdin-beltzeko Naia Barrio, Maider Gasalla eta Uxue Altuna alebinak eta Kevin Pinza eta Ibai Alkain lehiatu ziren. Guztiak lehen

hogeita bost sailkatuen artean izan ziren.

Hurrengo hitzorduak

Eta maiatzari amaiera emateko hitzordu garrantzitsuak dituzte Ostadar SKTko kideek.

Hilaren 28an eta 29an, absolutu mailako Gipuzkoako txapelketa lehiatuko da Kote Olaizola Miniestadioan, Donostian.

Oihana Belartietak, berriz, hilaren 28an, Euskadiko Eskolarteko kirol jokoetan parte hartuko du Gipuzkoako selekzioarekin, Gasteizen. Bi proba egingo ditu: jauzi hirukoitza eta 4x80 m. lasterketa.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OKM, KOPA FINALA

Kostkas KE - Ostadar SKT

Larunbata. 16:30. Berio, Donostian.

INFANTIL TXIKI PARTE HARTZEA

Ostadar SKT - Ordizia KE

Larunbata. 10:30. Michelin kirol gunean.

INFANTIL 1. MAILA, KOPA

Santo Tomas Lizeoa A - Ostadar SKT A

Larunbata. 14:00. Berio, Donostian.

ARETO FUTBOLA

JUBENILAK, UDABERRI TX., FINALA

Eguzki AF - Aldapeta C

Larunbata. 17:00. Maialen Chourraut kirol.

PILOTA

JUBENILA 2. MAILA, FINAL LAURDENA

Oiarpe - Intza (Urdepilleta)

Larunbata. 16:00. Madalensoro, Oiartzunen.

KADETEA 2. MAILA, FINAL LAURDENA

Intza - Abantzu

Larunbata. 16:15. Michelin kirol gunean.

ERRUGBIA

18 URTEZ AZPIKOA, FINALERDIA

Itsasmeni Beltzak RT - RC Rioja

Larunbata. 10:30. Lekaroz, Elizondo,

Nafarroan.

IGERIKETA

EUSKADIKO ESKOLARTEKO JOKOAK

Buruntzaldea IKTko alebin eta infantilek Euskadiko Joko

Eskolarretan parte hartuko dute.

Larunbata. Mendizorrotza kir., Gasteizen.

ORDIZIA SARIA

Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutuek B mailako Ordizia Sarian

parte hartuko dute.

Larunbata. 16:00. Majori kir., Ordizian.

GIMNASTIKA

EUSKADIKO ESKOLARTEKO JOKOAK

LOKEko Maitena Sarmiento infantilak

Euskadiko Joko Eskolarretan parte

hartuko du.

Larunbata. Mendizorrotza kir., Gasteizen.

EUSKADIKO TXAPELKETA

LOKEko Mirian Prieto, Paula Martinez

eta Garazi Gomez gimnastek Amateur

mailako Euskadiko txapelketa

lehiatuko dute.

Igandea. Landako kir., Durangon.

JUDO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

LOKEko alebin mailako judoek

Gipuzkoako txapelketan parte hartuko

dute.

Igandea. 09:30. Urnietan.

ALEBIN TXIKIAK, GIPUZKOAKO KOPA

LOKEko judoka gazteak Gipuzkoako

kopan izango dira lehiatuko.

Larunbata. Urnietan.

ATLETISMOA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ostadar Atletismoa saileko kideek

Gipuzkoako txapelketan parte hartuko

dute.

Larunbata eta igandea. Kote Olaizola

miniestadioa, Donostian.

EUSKADIKO ESKOLARTEKO JOKOAK

Ostadarreko Oihane Belartietara

infantilak Euskadiko Joko

Eskolarretan parte hartuko dute.

Larunbata. Mendizorrotza kir., Gasteizen.

TRIATLOIA

GORLIZEKO BADIAGO TRIATLOIA

Gorlizeko Badiako Triatloia lehiatuko

da.

Igandea. 10:00. Gorliz, Bizkaian.

LASTERKETA

ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIA

Herriko korrikalariak Zegama-Aizkorri

Mendi Maratoian parte hartuko du.

Igandea. 09:00. Zegaman.

HONDARRIBIA 10K

Hondarribia 10K proban lehiatuko

dura herriko hainbat kirolari. Proba

horrekin batera Gipuzkoako 10k

Txapelketa ere lehiatuko da.

Igandea. 10:00. Hondarribian.

ESKOLA KIROLA

Eskola Kirola egitasmoan parte

hartzten duten gazteek azken festaz

gozatu ahalko dute.

Larunbata. Goiza. Michelin kirol gunean.

DENBORALDI AMAIERA

Ostadar SKT bere atal ezberdinetako

taldeak bilduko ditu ikasturte

amaierako festa egiteko. Besteak

beste, Kirolari onena eta Auzolan

Sariak banatuko ditu.

Larunbata. 11:15. Oriarte BHL Landaberrin.

Ostadar Ipar Martxako kideak Otsagabian izan dira

Taldeko kideek kirola, kultura eta adiskidetasuna batu dituzte maiatzean egin duten irteera berezian

Txintzarri

Ostadar Ipar Martxako kideek maiatzean irteera berezia egin dute, Otsagabian asteburu pasa izan dira. Bertako ipar martxa taldeko kideek gonbidatuta, hilaren 21ean eta 22an Pirinioetako herrian izan dira, kirola eta adiskidetasuna batuz.

Hilaren 21ean, Abodi mendilerrotik barrena ibili zen Ostadar eta Otsagabiko kideek osatutako taldea. Zehazki Taplatik Pikatuara dagoen ibilbide markatua egin zuten. Pirinioetako zein Iratiko Oihaneko ikuspegi ederra izan zuten.

Igandean, 22an, berriz, Peña Martara itzuli bat egin eta Larrexua kobazuloa ezagutu zuten.

Casa Koleto bisitatzeko aukera ere izan zuten. 1786. urtean eraikitako etxebizitza honetan denboran atzera egin eta XX. mendi hasierako familia burges baten altzariak eta gauzak ikusi zituzten Ostadar Ipar Martxako kideek.

Zaraitzuko Ibaixo-eko egoera eta Irunberriko institutuarena ezagutu zituzten, baita Pirinioetako bailaren despopulaztearen aurka egiten ari diren lanaren berri izan ere.



Ostadar eta Otsagabiko Ipar Martxako kideak, geldialdi batean. OSTADAR IPAR MARTXA

Liga erabakitzeke laurden zirraragarria

Ostadar Saskibaloia saileko Infantil Haundiak hitzordu bikoitza izan du. Hilaren 29an, SaskiAxular taldearen aurka sailkapeneko lehen postua jokatu du. Nahiz eta partida irabazi, tanto-kopuruarengatik bigarren postua eskuratu dute urdin-beltzek

Txintxarri

Ostadarreko Infantil Haundi mailako taldeak erronka garrantzitsua izan zuen hilaren 20-22ko asteburuan. Manu Risquezek eta Alba Cruzek zuzendutako jokalariek bi hitzorduri aurre egin behar izan zieten eta bigarrenetan, gainera, Liga zuten jokoan.

Hilaren 20an, ostiralean, Easo Urgull izan zuen aurkari Michelin kirol gunean jokatu zen neurketan. Etxeko taldea nagusi izan zen partida osoan zehar eta 49-21 irabazi zuen.

Bi egun geroago, berriz, SaskiAxularren aurka partida erabakigarria jokatu zuen Maialen Chourraut kiroldegian. Bi taldeak sailkapeneko lehen postuetan zeuden eta bi puntuko aldea zegoen bakarrik bien artean. Gainera, urdin-beltzek neurketa irabaziz gero, bien arteko neurketen tanto-kopuruak erabakiko zuen Ligako burua. Joaneko neurketan SaskiAxularrek 29-38 irabazi zuen. Beraz, Ostadarrek hamar puntuko aldea lortu behar zuen txapelkun izateko.

Lehen eta bigarren laurdenak borrokatuak izan ziren, 8-10 eta



Ostadarreko jokalaria bat, saskiratzea egiteko barneratzen. TXINTXARRI

9-10, hurrenez hurren. Hirugarren laurdenetan, berriz, nagusi izan zen etxeko taldea, 0-11. Ondorioz, azken laurdena hamahiru puntu gora iritsi zen.

SaskiAxularrek, ordea, ez zuen txapelketa hain erraz ihes egiten utziko. Donostiako taldeak azken laurdena ederki borrokatu zuen eta etxekoen akatsak ongi baliatu zituen aldea murrizteko. Bederatzi puntura jarri zen eta

partida momentu horretan amaitu izan balitz, luzapena egongo zen. Tamalez, azken segunduan biko saskiratze bat egin zuen SaskiAxularrek, eta Ostadarrek 24-31 irabazi arren, zazpiko aldeak Donostiako taldeari eman zion Liga.

Laugarren postua

Ez da jardunaldia jokatu duen talde bakarra izan. Kadete partaidetza mailako taldeak, esate baterako, Ligako 3. eta 4. postua jokatu zuen SaskiAxularren aurka. Donostiarrak 61-47 irabazi zuten. Beraz, laugarren postuan geratu dira Aitor Lasek zuzentzen dituen jokalaria.

Senior 3. mailako taldeak, berriz, hamabosgarren postua eskuratu du Eibar Saskibaloia 69-59 garaitu ostean.

Senior 2. mailakoek ere denboraldiko azken neurketa jokatu zuen. Nahiz eta Gaizka Urreiztiren taldeak norgehiagoka ederki hasi -bi hirukorekin aurrea hartu zuen-, Graficas Juaristi ZKEk bere erritmoa ezarri zuen eta 65-46 gailendu zuen.

Herriko kirolariak lan ederra egin zuten Getariako Triatloian

Aimar Sukunzak hamaseigarren postuan amaitu du proba eta jubenil mailako hirugarren sailkatu da

Txintxarri

Getariako VI. Triatloia jokatu zen hilaren 22an. 360 bat parte hartzailek, beroari aurre eginez, 750 metro igerian, 20 kilometro bizikletaz eta bost kilometro korrika egin zituzten.

Zumeatarra taldeko Aimar Sukunza herritarra (01.02.20) zein Trinko taldeko Itsaso Tolosa (01.18.52) hogeitahenen artean



Aimar Sukunza, proba lehian. KHP - FOTO.

sailkatu ziren. Sukunzak, gainera, hirugarren postua eskuratu zuen jubenil mailan.

Trinko taldeko Imanol Arteaga (01.08.51), Mikel Izagirre (01.17.35), Zigor Castro (01.19.31) eta Iñaki Urchueguia (01.19.47) kideak zein Zumeatarra taldeko Ibai Izagirre (01.12.52) eta Unai G. Somovilla herritarrek ere lehia amaitu zuten. Somovillak 01.05.55 denbora egin arren, epaileek lasterketan egindako huts batengatik sailkapenetik kanpo uztea erabaki zuten.

Aritzaleku Triatloian, berriz, Trinko taldeko Pablo Muñoz distantzia olinpikoan izan zen lehian, eta 02.42.45 egin zuen.



Leitza eta Lekunberri arteko ibilbidea egin zuten LOTMEko kideek. LOTME

LOTMEko kideek giro ederrean egin dute Leitza-Lekunberri bidea

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkartek aditzera eman du Mendi Festak berrikuntzak izango dituela aurten

Txintxarri

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko (LOTME) kide eta lagunek denboraldiko bigarren irteera, egin zuten hilaren 22an, igandean, Leitza eta Lekunberri artean.

LOTMEko kideek jakinarazi dutenez, apirilaren 3an egin zuten Urnieta eta Leitza arteko ibilaldiaren jarraipena izan zen.

Eguraldia lagun, Ireber eta Launtze mendietako gailurrak igaro zituzten eta bertako bista ikusgarriez gozatu zuten. Giro onean 24 kilometroko bidea egin ostean, Lekunberri iritsi ziren.

Bertan indarrak berreskuratu zituzten.

Berrikuntzak Mendi Festan

Bestalde, LOTMEk sare sozialetan zabaldu duen bideoan, Lasarte-Oriako 2022ko Mendi Festa irailaren 25ean antolatuko dela aurreratu du.

Hurrengo edizioan berrikuntzak egongo direla ere aditzera eman du. Ibilbideek moldaketak izango dituzte; motzean, esate baterako, Andatza mendira igoko dira parte hartzaileak. Izen ematea uztailaren 1ean irekiko da euren webgunean.

Intzako pilotariak, lau eta erdiko txapelketaren bila

Herriarteko txapelketan ezin izan dute Azpeitia garaitu. 3-0 galdu dute kanporaketako bigarren jardunaldian

Txintxarri

Herriartekoa amaitu da Lasarte-Oriarentzat. Michelin kirol guneko pilotalekuan jokaturako neurketak 3-0 galdu ostean, Azpeitian jokatu zen bigarren jardunaldian partidaren bat borrokatzeko aukera izango zutela uste zuten herriko ordezkariak. Tamalez, ez zen horrela izan eta Azpeitia nagusi izan zen, 0-3.

Kadete mailan, Jokin Lizasok eta Beñat Olazabalek ezin izan zuten askorik egin eta 22-1 galdu zuten.

Jubeniletan eta seniorretan ere berdin gertatu zen. Diaz de Gereñu-Urdanpilleta eta Artetxe-Elola bikoteek ezin izan zieten azpeitiarren erasoei ongi erantzun. Ondorioz, 22-4 eta 22-3 irabazi zuten Azpeitiak.

Finalaren bidean

Orain, Lau eta erdiko txapelketako bigarren fasea hasiko dute Intzakoek. Olazabal kadeteak eta Urdanpilleta jubenilak finala dute helburu. Final zortzirenetan Abantzu eta Oiarpe izango dituzte aurkari, hurrenez hurren.

Futbol talde ugarik lehiari agur esan diote

Texas Lasartearrako Kadete 1. Mailako taldeak eta Ostadar SKTko Erregionalen 1. Mailako zein Ohorezko Infantil mailako taldeek denboraldia amaitu dute. Talde urdin-beltzeko Ohorezko Kadete Mailako taldea, berriz, kopako finalera iritsi da

Txintxarri

Ez da posible izan. Texas Lasartearrako Kadete 1. Mailako taldeak ezin izan du igoera fasean garaipenik lortu.

Hilaren 22an, Michelin Kirol gunean Martuteneren aurka jokatu zuen igoera faseko azken jardunaldia. Donostiako taldea nagusi izan zen eta 0-2 garaitu zuen Iker Morenoren taldea.

Emaitza honekin fasea amaitu du talde zuri-urdinak. Bi neurketa berdindu ditu Zestoaren aurka eta gainerakoetan ezin izan du punturik egin. Ondorioz, multzoko azken sailkatua izan da eta ezingo du lehiaketan aurrera egin.

Lehia amaitu

Herriko hainbat talde ere denboraldi amaiera iritsi dira.

Ostadar SKTren Erregionalen 1. Mailako taldeak igoera fase amaitu du. Irauliren aurka 0-2 galdu ostean, Texasen antzera, azken postuan amaitu du fasea.



Texas Lasartearra eta Martuteneren jokalaria, baloiarengatik borrokan. TXINTXARRI

Ohorezko Infantilen Mailako taldeak, berriz, Euskalduna 2-0 garaitu arren, multzoko bigarren sailkatu da eta agur esan dio kopari.

Kopa finala

Hala ere, bada oraindik lehiaketa dagoen talderik ere.

Ostadar SKTko Ohorezko kadete mailako taldeak, esate baterako, maila eusteko

txapelketan sailkapeneko lehen izan ostean, kopako finalera iritsi da.

Arrupe Chaminaderen aurka jokatu zuen finalerdia zirrargarria izan zen. Neurketa binako berdinketarekin amaitu zen eta penaltietan erabaki zen finalerako postua.

Talde urdin-beltzak lortu zuen saria eta Kostkasen aurka jokatu du hilaren 28an finala.



Ostadarreko hainbat taldekide, Aialde Berri sagardotegian. TXINTXARRI

2012ko igoera gogoratu dute

2012ko maiatzaren 26an, Ostadar SKTko Erregionalen Ohorezko Mailara igotzea lortu zuen, Zumaiakori 3-2 irabazita (joaneko partidaren bana berdindu zuten). Partida horretako golak Javi Solchagak, David Martinek eta Zumaiakok berak (bere atean) sartu zituzten. Epaileak norgehiagoka bukatu zela adieraztean, pozez lehertu ziren jokalariek, entrenatzaileak, zuzendaritza taldeko kideak eta zaleak. Aurreko denboraldietan hatz mamiekin ukitutako helburu hori lortu zuten 2011-2012 sasoiaren.

10 urte geroago, bazkaria egin zuten talde horretako hainbat kidek, Usurbilgo Santuenea auzoko Aialde Berri sagardotegian. Igo ziren denboraldiko hainbat uneko gogoratu eta egun eder bat igaro zuten. Hauek izan ziren elkartu zirenak: Fran Toquero, Mikel Martija, Asier Garcia, Iker Pielago, Ganix Arrondo, Iosu Arteaga, Asier Sagasti, Asier Gorostegi, Gorka Belartietia, Iñaki Aristondo, Javi Solchaga, Omar Garcia, Iñigo Gonzalez, Alexander Rodriguez, Manex Altolagirre, Aitor Hernando, Arkaitz Sanchez eta David Martin.

Infantil Txiki eta Infantil 1. mailako taldeek ere azken faseko partidak jokatu dituzte. Infantil

Txikiak parte hartze faseko final laurdenak; infantil 1. mailako taldeak, berriz, kopakoak.

Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak, ezin finalera iritsi

Lasarteoriatarrek TEEP Tolosala 4-5 garaitu duten arren, joaneko emaitzak Tolosako taldea sailkatzea ekarri du

Txintxarri

Nahiz eta ederki borrokatu, Eguzki Arkupe Rehabilitaciones ez da 1. mailako finalean egongo. TEEP Tolosalaren aurkako finalerdietako bigarren neurketa jokatu zuen hilaren 20an, Tolosan. Talde hori-berdea lehen zatian nagusi izan zen eta garaipena eskuratu zuen. Ahaleginak ez zuten fruiturik eman, ordea, eta etxekoek finalerako txartela lortu zuten.

Eguzkik 4-6ko aurkako emaitzari itzulita eman behar zion, eta finala buruan zuela, indartsu hasi zuen norgehiagoka.

Alboko sake baten ostean, bigarren minutuan aurrea hartzea lortu zuten Josu Lopezek eta Mikel Escribanok zuzentzen duen taldeak; bigarren gola bosgarren minutuan etorri zen.

Jokoan nagusi zela, hirugarren gola ere egin zuen Eguzkik. Tolosalak aldea murriztu zuen defentsako huts batez baliatuz. Atsedenaldea baino lehen, Lasarte-Oriako taldeak sarera bidali zuen baloia laugarren aldiz.

Emaitza horrekin Eguzki Rehabilitacionesek finaleko txartela eskuan zuela zirudien

arren, Tolosako taldeak ez zuten amore emango.

Bigarren zatian, jokoak berdindu zen eta bi taldeek aukerak sortu zituzten. Gauzak horrela, Lasarte-Oriako taldeak bosgarrenez gainditu zuen Tolosako atezaina.

Alabaina, partida amaitzeko hamar minutu falta zirenean, taktika aldatu zuen TEEP Tolosalak. Arriskatu, atezain jokalariaekin hasi zen jokoan.

Eguzkik ezin izan zituen sortutako aukerak baliatu; Tolosako taldeak, ordea, hiru gol egin zituen eta 4-5eko emaitzarekin herritarren helburua zapuztu zuen.

Udaberriko txapelketako finala

Bestalde, jubencil mailako taldea bere multzoko lehen postuan sailkatu da Udaberri txapelketan eta finala jokatu du.

Udako denboraldia hasiko da Donostiako Hipodromoan

Hamabost jardunaldi izango ditu sasoiak, guztira. Ekainaren 1etik irailaren 9ra lehiatuko dira lasterketak

Txintxarri

Donostiako Hipodromoko 106. denboraldia hastear da. Ekainean sartzearrekin batera jokatu dira lehen lasterketak eta irailaren 9ra arte luzatuko dira. Sasoi berri horretan, guztira, hamabost jardunaldi izango dira, eta 76 lasterketa lehiatuko dituzte.

Ekaineko hitzorduak asteazkenetan izango dira, hau da, hilaren 1ean, 8an, 16an eta 22an. Uztailean, berriz, lau igande (3, 10, 24 eta 31) eta larunbat batean (16) joan ahalko dute

zaleek Hipodromora. Abuztuaren ere, igandean izango dira lautik hiru saio (7,21 eta 28). Izan ere, Urrezko Kopako jardunaldia abuztuaren 15ean, astelehenean lehiatuko baita. Eta irailean, bi jardunaldi besterik ez dira egongo: 4an, igandea eta 9an, ostirala. Azken horretan, Donostiako Sari Nagusiak emango dio amaiera denboraldiari.

Sariei dagokionez, lasterketa guztien artean 825.250 euro banatuko dituzte, aurreko denboraldian baino %15 gehiago.

Nahia Zudaire eta Izan Iñurri, Ostadarren sarituak

Ostadar SKTk denboraldi amaierako festa berreskuratuko du. Hilaren 28an, goizean, Oriarte BHI Landaberrin izango da jaialdia. Taldeek euren jokalarri jatorrenei sariak ematez gain, elkarteak Kirolari Onena eta Auzolan sariak ere banatuko ditu

Txintxarri

Jai giroan amaituko du Ostadar SKTk 2021-2022 denboraldia. Azken bi urteetan egin ez bezala, Ostadarreko sail ezberdinetako kideak Oriarte BHI Landaberriko patioan batuko dira hilaren 28an, larunbarekin.

Ostadar Inklusio atalak antolatutako jolas inklusiboek emango diote hasiera ekimenari, 11:30ean. Osteen, 12:30ak aldera, sail eta talde bakoitzeko entrenatzaileek jokalarri jatorrenei sariak banatuko dizkiete.

Kirolari onena eta Auzolan

Eta ohitura duen moduan, Ostadar SKTk bi sari berezi banatzeko baliatzen du azken festa hori: Kirolari Onena eta Auzolan sariak.

Aurten Kirolari Onena Nahia Zudaire igerilariarentzat izango da. Iaz lehenengoz Tokioko Paralinpiar Jokoetarako sailkatu zen gaztea, eta hiru probetan parte hartu zuen bi diploma olinpiko lortuz.

Auzolan saria, berriz, Izan Iñurri egitasmoak jasoko du. Minbizia bizi dutenei eta haien ingurukoei laguntzeko helburuz orain artean auzolanean egindako lanarengatik eskaniko diote saria.



2018-2019 denboraldiko sari banaketako irudia. TXINTXARRI

Ekitaldia giro ederrean amaitzeko, Beltzak Errugbi taldeko kideek hirugarren denbora prestatuko dute. Eta zer jan eta edan izango dute Oriarten batzen diren guztiek.

Izen emateak

Denboraldiari modu ezin hobean amaiera eman ostean, hurrengo denboraldia prestatzen hasiko da kirol elkarte eta ekainaren lehen izen emate epea irekiko duela jakitera eman du.

Kirol egokitua eta inklusiboa, saskibaloia, boleibola, atletismoa, errugbia edo futbola egin nahi duten haurrek zein gazteek

ekainaren 17ra arte izango dute inskripzioa egiteko.

Ostadarren kirola egin nahi izanez gero, elkartearen webgunean dagoen formularioa bete behar da.

Aurrerago, taldeak osatzen direnean, entrenatzaile edo koordinatzaileak interesatuekin jarriko dira harremanetan, zein taldean jokatu duten jakinarazteko.

Zalantzarik izanez gero, Ostadarreko Geltoki kaleko 25 zenbakian dagoen bulegora hurbildu daitezke herritarrak astelehenetik ostiralera 17:00etatik 19:00etara.

Eskola Kirola egitasmoari amaiera ederra emateko festa

Egitasmoan parte hartzen duten haur eta gaztetxoak Michelin kirol gunean bilduko dira ordutegi ezberdinetan

Txintxarri

Lasarte-Oriako ikastetxeetako guraso elkarteek eta Ttakun Kultur Elkarteak elkarlanean antolatzen duten Eskola Kirola egitasmoak 2021-2022 ikasturteari amaiera emango dio, hilaren

28an, larunbarekin, Michelin kirol gunean. Herriko haur eta gazteek asteroko saioak amaitu eta festa giroan kirolaz gozatzeko aukera izango dute.

Lehenak LH3 eta LH6 maila arteko gaztetxoak izango dira,

09:15etik 10:30era, eta hiru kirol guneetan –eskubaloia, futbola eta pilota– arituko dira. Osteen, 10:45ean, LH1 eta LH2 mailakoek jolasak egingo dituzte.

Lanean hasita

Egitasmoa antolatzaileak, dagoeneko hurrengo ikasturtea antolatzen hasi eta ekain hasieran izen emate irekiko dela jakitera eman dute. Guraso elkarteek aurki helaraziko diete gurasoek zein datetan egin beharko duten inskripzioa.



San Juan Sarian parte hartu zuten Buruntzaldea IKTko igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

Buruntzaldea IKTko igerilariak, ederki San Joan Sarian

Marka pertsonalak eta Infantil zein maila Absolutuko Udako Euskal Herriko txapelketetarako gutxienekoak lortu dituzte

Txintxarri

Tolosako San Juan Saria lehiatu zen hilaren 21ean, Usabal kiroldegian. Gipuzkoako Sarien A Zirkuituko bigarren jardunaldi horretan, Buruntzaldea IKTko Miren Sarobe, Garazi Etxeberria eta Nora Imaz igerilariak parte hartu zuten. Euren markak ondu eta Infantil zein Absolutu mailako Udako Euskal Herriko txapelketetarako gutxienekoak berriak ere lortu zituzten.

Gutxieneko markak Miren Sarobe infantilak eskuratu zituen. Estilo libreko 50 m. eta 100 m. probetan lehiatu zen. Denbora onak eginez, 29,00 eta 01.02,58, hurrenez hurren, marka pertsonalak hobetu eta Infantil mailako Euskal Herriko Udako Txapelketarako gutxienekoak egitea lortu zuen. Ez hori bakarrik, Absolutu mailako Euskal Herriko Udako Txapelketan parte hartzeko aukera ere lortu zuen.


Garazi Etxeberriak, berriz, bi proba egin zituen: 50 metro bular eta lau estiloetako 200 metroko proba. Buruntzaldea IKTko arduradunek jakitera eman dutenez, Garazi belaunean lesio batekin dabil eta "min horrek ez zion bere onenean lehiatzeko aukerarik eman". Hala ere, bular proban bere marka pertsonaletik gertu ibili zen (36,67), eta lau estiloetako proban berriz, 02.41,29 denbora egin zuen.

Azkenik, Nora Imazek 50 m. eta 100 m. libre zein bular probak lehiatu zituen. "Entrenamenduetan prestatzen dituen probak ez direla kontuan izanik, lan txukuna egin zuen", adierazi dute prestatzaileek. Lehen proban bere errekorretik gertu geratu zen, 29,03; 100 m. bular proban 01.21,65 denborarekin marka pertsonala lortu zuen eta 100 m. librean berriz, "aspaldian lortu ez zuen mailara gerturatu zen", 01.01,68 segundotan erlojua geratuta.



Eskola Kirola egitasmoak abenduan egindako yopaketa irudia. TXINTXARRI

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Ainara
Zorionak sorgina!!! 5 urte! Muxu pottolo bat familiaren partez



Maritxu
Zorionak "Maritxu mutxa marxa"!!! Segi horrela urte askoan!!! Larunbatean, tripa bete eta kandelak itzali! Muxu asko familiaren partetik, guapa!!!



Xabier
Zorionak Xabi eta aitaxo!!! Gora eta gora zoazte!!!! Ondo pasa zuen urtebetetzean muxu potolo bana etxekoan partez!



Enaut
Zorionak Enaut! Ondo pasa zure 19. urtebetetzea! Gustora ospatuko dugu familien artian. Segi jain jator beti. Oier, aiton-amoneta eta familien partetik.



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n.
Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 27	ACHA-ORBEA	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 28	DE URUE	DE URUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 29	DE URUE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 30	URBISTONDO	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 31	GANDARIAS-URIBE	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 1	LASA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
OSTEGUNA, 2	DE URUE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00

M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

URTE OSOKO GUARDIAK APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

API Inmolasarte
Etxea saldu edo alokatu nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan. Esperientzia handia dugu. Esku onetan zaude!
943-53 64 81 | 629 63 18 38
Iñigo de Loloia, 2 behe.
LASARTE-ORIA
info@inmolasarte.com

ETXEBIZITZA

SALDU
Marina D'Ori urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro

ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldia eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatu genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06

ERRENTAN EMAN

Errioxan, Alesancotik gertu, 60 metro karratuden apartamentua alokagai. 60 metro karratuden lorategia du, bista paregabeak, baita igerileku komunitarioa ere. Ekainetik irailera alokagai, hamabostaldika. Nahiz izanez gero argazkiak bidaltzeko prest. Harremanetarako zenbakia: 666 88 0917.

PARTEKATU

Neska langile bat naiz eta etxebizitza osatzeko beste

bi neska arduratsu eta garbiren bila nabil. Etxea argisua, handia da eta gela guztiek kanpo aldera ematen dute. Herri erdian dago, topo eta autobus geltokitik oso gertu. Harremanetarako zenbakia: 666 32 05 20.

Bi neska gazte gara eta pisukide bila gabilza. Etxea Zabaleta auzoan dago, 70 m2 ditu eta alokairua hila batean 200 euro dira (gastuak aparte). Interesa baduzu deitu mesedez telefono honetara: 663935176 (Iratzi).

LANA

ESKARIA

Goizetan zein arratsaldetan edozein adinetako umeak

zaintzeko, ikastolara eramateko edo bertatik jasotzeko, eta behar izanez gero beraien etxeko lanetan laguntzeko eskaintzen dut neure

burua. Harremanetarako zenbakia: 644 98 03 49.
Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79.

Prest nago adineko pertsonak orduka zaintzeko edo tabernari zein sukaldari gisa aritzeko. Harremanetarako zenbakia: 663 49 98 41.

Garbitzaile lanak egiteko prest nago, orduka. Harremanetarako zenbakia: 618 81 43 63.

Pertsona eskaintzen da interna modura lan egiteko. Esperientzia dut eta berahala hasteko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Lan bila nabil. Hoteletan garbiketa lanak egiteko, edo etxeetan. Pertsonak zainduko nituzke orduka. Esperientzia handia eta erreferentziak. Harremanetarako zenbakia: 671 76 35 58.

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Zaintza ikastaroa egina dut. Interno edo orduka lan egingo nuke. Harremanetarako zenbakia: 676 18 84 11.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

SALEROSKETA

SALDU

Kymco people GTI motorra saltzen dut. 125 c.c., ondo zainduta eta azterketa tekniko pasata!! Iker 618 09 80 75.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea naiz, eta DBH mailako eskola partikularrak emateko zein edozein

adineko umeak zaintzeko eskaintzen dut nire burua, edozein momentu eta ordutegian lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 644 98 03 49.

Zientzia esparruko erreferentzia saioren partikularrak eskaintzen ditut. DBH eta Babilergo ikasleentzako, irakasgai askotan: Matematika, Fisika, Kimika, Marrazketa, Teknologia, Biologia eta Geologia. Ingeniaritza Mekanikoko gradua eta bigarren hezkuntzako masterra ditut. Harremanetarako zenbakia, 697 45 97 96.

AURKITUAKOAK

Urrezko kate bat aurkitu nuen apirilaren 20an. Galdu duena jar dadila nirekin harremanetan: 626057411 (Maria)

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julien Basterra,
Nerea Segura, Lierni Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Unai Bardaji, Oier Bocos, Lide
Hidalgo, Uxue Odriozola, Julene Iraola,
Egoltz Epelde, Jose Lanchas
eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

LASARTE-ORIA Irakurraldi bertsotua

Lasarte-Oriako Muntteri AEKrekin elkarlanean, eta Korrika Kulturalaren barruan, irakurraldi bertsotua antolatuta dute. Uxue Alberdi idazle eta bertsolariaren *Dendaostekoak* liburua oinarri hartuta egingo dute saioa. Idazleak bere lanaren pasarte bat irakurri eta, hortik abiatuta, bertsotan arituko dira Ane Labaka eta Nerea Ibarzabal. Aitor Nova musikaria izango dute lagun. 18:30ean izango da, kultur etxean. Manuel Lekuona, 18:30ean.



OSTIRALA 27

LASARTE-ORIA Erakusketa

Jose Mari Martin margolariak hainbat koadro jarri ditu ikusgai Jalgi kafe antzokiko paretetan. Haren margolanak ikustera joateko azken eguna ekainaren 5a izango da, igandea. Jalgi kafe antzokia, 09:30etik 21:30era.

LASARTE-ORIA Udaberri Festa

Lasarte-Oriako merkatarien elkarte Aterpeak antolatutako Udaberri Festaren barruan, haurrek zenbait tailerretan parte hartu ahaliko dute: 17:00etatik 18:00etara, Landatu zure landarea, Ormazabal loradendan. 17:00etatik 19:00etara, Mural bat egin, Ola Enmarcacion denda. 17:00etatik 19:30era, Poltsa apainketa, Nahio Arropa Denda. 17:30etik 19:30era, Paperezko panpin bat egin, Dulce Tentacion gozoki denda. Herrian zehar, 17:00etatik aurrera.

USURBIL Txalaparta festa

Txalpartaren kltura plazaratu eta Jexux Artze txalaparta jotzailea omentzeko I. Txalaparta Festa antolatu du Jexux Artze Kultur Elkartek. 11:45etik 14:00etara herri erromeria izango da, Mikel Laboa plazan. Adar deia, txalaparta ikasleen emanaldiak izango dira, eta bi instrumentu horiek jotzen ikasteko ikastaro azkarrak ere iragarri dituzte. 14:30ean bazkaria Artzabal jatetxean. 18:00etan Jexux Arterri omenaldia Dema plazan,

eta 18:45ean kontzertuak: Kimu Txalaparta eta Hutsun Txalaparta Taldea.

Herrian zehar, 11:45etik aurrera.

LARUNBATA 28

LASARTE-ORIA Udaberri Festa

Lasarte-Oriako merkatarien elkarte Aterpeak antolatutako Udaberri Festaren barruan, Txu-txu trenak herriko kaleak zeharkatuko ditu, Okendo plazatik abiatuta. Okendo plaza, 10:00etan.

USURBIL Kontzertua

Kantu-jira antolatu dute herriko euskal kantu taldeko kideek. Mikel Laboa plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Topaketak

Danok Kide elkarteak XVII. Musika Topaketak antolatu ditu larunbat honetarako, hilak 28. 19:30ean hasiko dira Hondarribiako Aqua Lauda korua eta Suediatik etorriko den Helsingborg-eko Ahots Taldea. Ama Brigitarren komentuan ariko dira biak eta sarrera doakoa da. Ama Brigitarren komentua, 19:30ean.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Onki Xin taldeak kontzertua emango du Jalgi kafe antzokian. Sarrera, doan.

Jalgi Kafe antzokia, 23:00etan.

IGANDEA 29

LASARTE-ORIA Aste berdea

Hegaztien mundua ezagutzeko

ibilbide batek irekiko du aurtengo Aste Berdea. Gipuzkoako Foru Aldundiko basozain Mikel Olanok gidatuko du ekimena; 10:00etan abiatuko da txangoa, Tximistarreta parketik. Bi ordu inguru iraungo du, eta partaideek ezagutuko dituzte erreka, baso eta soro inguruetan bizi diren txori espezieak. Tximistarreta parkea, 10:00etan.

LASARTE-ORIA Dantza

Erketz Euskal Dantza Taldearen Dantzari Txiki Egunak alaituko du herria. 32. edizioa izango da aurtengoa. 11:30ean hasi eta 13:15ean amaituko dela jakinarazi dute antolatzaileek. Herriko auzoetan zehar ibiliko dira. Herrian zehar, 11:30ean.

ASTEARTEA 31

LASARTE-ORIA Aste Berdea

Froilan Elespe parke botanikora bisita gidatuak. 10:00etakoa eta 16:00etakoa euskaraz izango dira, eta 19:00etakoa, gaztelaniaz. landareen aberastasuna ezagutuko dute parte hartzaileek. Froilan Elespe parkea, 10:00etatik aurrera.

OSTEGUNA 2

LASARTE-ORIA Aste Berdea

Toponimian aditua den Luis Mari Zalduaren eskutik, Lasarte-Oriako ingurune naturalean zehar ibilaldi gidatua egitea proposatu dute. Tximistarreta parkea, 19:00etatik aurrera.

ZINEMA

ANDOAIN

BASTERO

'Cinco lobitos'

Larunbata 28
19:30, 22:00.

Igandea 29

19:30.

Astelehena 30

19:30, 22:00.

USURBIL

URBIL

'Animales fantásticos: los secretos de Dumbledore'

Ostirala 27

21:00.

Larunbata 28

12:00, 21:00.

Igandea 29

12:10, 21:00.

Cinco lobitos'

Ostirala 27

16:20.

Larunbata 28

12:00, 16:20.

Igandea 29

12:00, 16:20.

'Doctor Strange en el Multiverso de la Locura'

Ostirala 27

16:05, 19:05,

22:05.

Larunbata 28

12:05, 16:05,

19:05, 22:05.

Igandea 29

12:05, 16:05,

19:05, 22:05.

'El Arma del Engaño

Ostirala 27

21:50.

Larunbata 28

21:50.

Igandea 29

21:50.

'El Hombre del Norte'

17:15, 19:50,

Ostirala 27

18:50.

Larunbata 28

18:50.

Igandea 29

18:50.

'El Sastre de la Mafia'

Ostirala 27

16:15.

Larunbata 28

12:05, 16:15.

Igandea 29

12:05, 16:15.

'Juego de Asesinos'

Ostirala 27

22:00.

Larunbata 28

12:15, 22:00.

Igandea 29

12:15, 22:00.

'Jujutsu Kaisen 0'

Ostirala 27

17:15, 19:50,

22:25.

Larunbata 28

17:15, 19:50,

22:25.

Igandea 29

17:15, 19:50,

22:25.

'Los tipos malos'

Ostirala 27

15:50, 18:25.

Larunbata 28

12:10, 15:50,

18:25.

Igandea 29

12:10, 15:50,

18:25.

'Ojos de fuego'

Larunbata 28

12:15.

Igandea 29

12:15.



LABURPENA

'El sastre de la mafia'

Zuzendaria: Graham Moore. **Gidoia:** Johnathan McClain, Graham Moore. **Argazkia:** Dick Pope. **ekoizleak:** Filmnation Entertainment, Scoop Productions, Unified Theory. **Distribuidora:** Focus Features. **Herrialdea:** Ameriketako Estatu Batuak (2022). **Iraupena:** 106 minutu. **Generoa:** Drama, krimena. **Musika:** Alexandre Desplat. **Aktoreak:** Mark Rylance, Zoey Deutch, Dylan O'Brien, Johnny Flynn, Nikki Amuka-Bird, Simon Russell Beale, Alan Mehdi-zadeh, Johnathan McClain, Chiedu Agborh, Scoop Wasserstein, John Gumley-Mason, Michal Forejtek.

Mafian inplikaturako jostuna

Leonard (Rylance) Londresko Savile Row ospetsuan jantziak egiten zituen jostun igulesa da. Ezbehar pertsonal baten ondoren, Chicagon amaitu du. Jostundegi txiki batean lan egiten du, hiriko eremu zailenetako batean. Jantzi

dotoreak egiten ditu gangster familia batentzat. Mafioso-familia hori Leonarden izaera jentil eta atseginaz balliatzen saiatuko da, eta, azkenean, Leonard, Mableren (Zoey Deutch) laguntzailearekin, mafiarekin gero eta modu larriagoan inplikaturako da.

Argazki lehiaketako irabazleei sariak banatu dizkiegu

Beste urte batez Aste Santuko argazki lehiaketa antolatu dugu TXINTXARRI aldizkarian eta hemen dituzue irabazleak. Zorionak guztiei! Eskerrak eman nahi dizkizuegu argazkiak bidali dituzuenoi, bozkatu duzuenoi, epaimahaiko kideoi (**Isaac Farre, Txema Valles eta Idoia Telleria**) eta baita irakurleoi ere, jakina. Datorren hilabetean sanpedrotako argazki lehiaketa prestatuko dugu. Beraz, adi irakurle!

EPAIMAHAIK AUKERATUTAKO ARGAZKIA

ARGAZKIA: Enara Iregi Uitz




SARIA: AVENIDA
TABERNAN BI
MENU



IRAKURLEEK AUKERATUTAKO ARGAZKIA

ARGAZKIA: Lide Iturbe Larrañaga



SARIA:
ERRIGORAKO OTAR
EDER BAT



Patata tortillak ere badu jabea

Apirilean Korrikaren galdera lehiaketa antolatu genuen TXINTXARRI aldizkarian. Irabazleak Avenida tabernako patata tortilla eder bat eskuratu zuen eta aste honetan atera dugu argazkia, Yon Mikel Rodriguez jabe eta Maddi Labaka irabazlearekin. Zorionak Maddi, eta mila esker parte hartu zenuten guztioi!





Deskontu bereziak herrikoentzat!

San Pedrotako zenbaki bereziak ekainaren 24an eta uztailaren 8an

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?

Eskatu tarifak: publizitatea@ttakun.eus | 646 82 44 66



22/23 DENBORALDIRAKO IZEN-EMATEAK: Ekainaren 1etik 17ra



atletismoa



boleibola



egokitua eta inklusiboa



futbola



saskibaloia



errugbia

Informazioa: 943-36 04 33 | Geltoki kalea, 25 | www.ostadarskt.eus